


Mikel Nazabal



URBASA-ANDIA Parke Naturaleko ataken lehen emanaldian Urbasari zegozkionak ikusi genituen eta orain berriz Andia-Satrustegi mendilerroa eramaten gaituztenak ezagutzen ahaleginduko gara.

■ San Donato mendilerroa. Ergoienako bailaratik


■ Satrustegiko mendilerroa



ANDIA-SATRUS

Ipar mendi-hegaleko atakak

(II. eta azken atala)



■ KOKAPENA


Andia-Satrustegi, mendilerroa, ekialde mendebalde norabidean goi lautada luzexka osatzen duen Urbasa mendiaren jarraipena da.

Mendi honek, Urbasak bezalaxe, Lizarragako mendateko 1000 metrotik Andia-ko ekialdeko ertze (Leziza) Goñi-Treku gaineko 1266 metrora, ez du garaiera alde handirik eskaintzen.


Lezizan puskatzen da ipar gailurrerik dakarren uniformetasuna eta Ergoiena-Sakana haranerantz sartzen da sekulako haitz puska Satrustegi mendia eratuz, Beriain-San Donato tontorretik (1493 m) ekialderantz Oskiako ebakiduraraino.

Urbasa ezagunaren jarraipena den Andia mendiaren gailurrerik ez ditu 1100 metroak garaitzen, eta Lezizatik aurrera goraka hasi eta Beriain 1420 metroak arte igotzen da, hemen desnibela 780 metrora iristen delarik.

Aurrerantzean pixkanaka garaiera galduz ekialderantz jarraitzen du berriz gailurrerik (hegalkindua batzuetan) Satrustegi mendiko ekialdeko ertzeraino iritsi arte (Oskiako ebakidura).



TEGIKO



KLIMATOLOGIA

Hidrologikoki Urbasa-Andia plataformak eremu karstiko baten ezaugarriak ditu.

Bere baldintza klimatikoak eremu epeleko mendialdeari dagozkionak dira, zonalde ozeanar eta azpikontinentalaren artean. Horrela bada, geografoek dioten moduan, "muga bioklimatiko" eremu oso garrantzitsua osatzen du.

Negua luzea eta euritsua izaten da, elurteak berriz ez aitzinean bezain ugariak eta izotza sarritan botatzen du. Udaberria neguaren luzapen leuna besterik ez da. Uda motzek eta

udazken gero eta gozoagoak osatzen dute urte giroa.

LANDARETZA

Landaretza Andia-Satrustegi mendiko iparraldean ugaria dela esan daiteke. Arantzadun landare eta sastrakadiekin batera lizarrak eta hurritzak aurkitzen dira, ondoren haritzek eta pinu orban bakan batzuk betetzen dutelarik 650 metro bitarteko ipar hegala (Barga).

Hemendik aurrera pagoa da ipar hegala honetako haize hotz eta hezeak jasateko gai den zuhaitz bakarra.

Mendiaren goi aldean lur harritsuak eta sakonera gutxikoak sustraiak botatzea galarazten duen tokian, Satrustegi mendiko ekialdean, eta Iruñerriko klima mediterraniarraren eragina nabarmen den eremuan, ezpela ageri da, Sakana haranean ez bezala mediterraniar klimako ezaugarria adieraziz.

FAUNA

Labore soroen ondoren hasten dira (gero eta gehiago) landu gabeko zelaia, belarra bildu edo neguko hilabete gogorretan bertara

bazkatzera ardiak, behiak edota behorrek eramateko.

Iparraldean bizi den faunaren artean aipatzekoak dira apo arrunta, sugandila, arrabioa eta arrisku gutxiko narrasti sorta txikia.

Baita ere eta lurreko ornodunen artean aurkitzen ditugu lepezuria, katajineta, basakatu, azeria eta basurdea.

Hegazti handien artean berriz, miru gorria, belatza, eskinosoa, belea eta belatxinga. Azken hauek dira hego mendi hegalean habia egiten duten sai arre kolonia batekin batera erlaitzaren goi aldea menderatzen dutenak.

ATAKAK

Urbasa mendizerrako ekialdeko muturrean dagoen Zumbeltzeko failatik abiatuz, ekialderantz jarraituko dugu Andia mendiko gailurreriatik Satrustegi mendiarekin topo egin arte. Horren aurretik eta ipar-ekialdera eginez orain, San Donatoko gailurreria, Beriain mutur duela, zeharkatuko dugu.

Hementxe, toki atsegina udan baina jasan ezina neguko egun luze eta hotzetan, dago San Donato basiliza eta aterpea. 1492 metroko garaieran egonik, bera da Nafarroan garaiera handienez kokaturiko basiliza eta Euskal Herriko bigarrena.

Azken urte hauetan Anaitasuna kirol elkartearen ekimenez eta ondoren Uharteko udalaren babesaz badirudi berritze lanak hasteko borondatea badagoela baina egun ez dira oraindik lanak hasi.

Ekialdera jarraituko dugu Satrustegi mendian zehar, ekialdeko muturrean muga egiten duen Gaztelu mendia ondo Urritzolako ataka aurkitu arte.

GAILURRERIAN KOKATURIKO AZTARNA HISTORIKOAK

Gaztelu aztarnak	Herria
Gaztelu	Arakileko Kontzejua

GAILURRERIAN KOKATURIKO BASELIZAK

Baseliza	Herria
Santa Quiteria (aurriak)	Dorrao
San Donato	Uhart-Arakil

MENDI HEGALEAN (BARGAN) KOKATURIKO BASELIZAK

Baseliza	Herria
San Juan, San Tomás eta San Pedro	Dorrao
Mundiñano (aurriak)	Unanu
San Bartolome	Uhart-Arakil
San Pedro	Irañeta
San Basilio	Satrustegi

ANDIA-SATRUSTEGIKO TONTORRAK ETA BERAIETARA IGOZTEKO SARBIDEAK SAKANATIK

Gailurra	Garaiera	Sakanatik sarbidea	Euskal Herriko mendien katalogoa
Saratsa/Usabide	1171 m	Lizarraga	Bai
Eskalaborro	1228 m	Lizarraga	Ez
Peña Blanca	1269 m	Dorrao	Ez
Altos de Goñi	1266 m	Dorrao	Ez
Trekua	1265 m	Dorrao	Bai
Leziza	1350 m	Dorrao - Unanu	Bai
Beriain-San Donato	1493 m	Dorrao - Unanu	Bai
Amorro	1346 m	Uhart-Arakil	Ez
Irañetako Portua	1271 m	Irañeta - Ihabar	Ez
Satrustegi	1139 m	Satrustegi	Bai
Txurregi	1225 m	Urritzola - Ekai	Bai
Gaztelu	1001 m	Ekai - Urritzola	Bai



1 - PORTUTXARKO ATAKA

Dorraako herria 620 m
 Atazabalgo ataka 1040 m
 Aldea 420 m

Igoera denbora 2 ordu

DORRAO (620 m). Herri erditik hasiko gara Lizarragako portu aldera, hegoalderantz, eta errepidea beherantz hasi aurretik ezkerretara sartzen den pista batetik joko dugu.

Herria berehala utzi eta soro eta larre artean San Pedro baselizaraino iritsiko gara.

Baseliza atzean utzi bezain pronto eta burdinazko langa bat pasa ondoren eskuin aldera sartzen den pistatik jarraituko dugu.

Hemendik aurrera eta gora egiten dugun heinean, bide ertzean doan erreka Leziza da.

Basoan barna pago artean Gazteluko ur-jauzia agertuko zaigu. Bidea utziz gerturatuko gara merezi du eta.

Berriz bidean gora aldapa zorrotz bat igaro ondoren Gazteluko aterpera (ezker aldean) ailegatuko gara.

Burdinazko langa pasa eta orain arteko pista atzean utziko dugu. Aurrerantzean mendi bide batetik jarraituko dugu baso lantegi batera iritsi arte.

Gorantz goazen neurrian paisaia gero eta ederragoa bihurtzen ari da.

Bideak ezker aldera jotzen du ekialderantz, zuhaitzak gero eta gutxiago dira eta berehalaxe iritsiko gara Atazabalera, Portutxarko goiko aldera (1255 m)



2 - LEZIZAKO ATAKA

Unanuko herria 635 m
 Lezizako ataka 200 m

Igoera denbora 2 ordu eta 30' Aldea 565 m

UNANU - DORRAO (635 m). Igoera hau egiteko bi aukera ditugu, Unanutik edota Dorraotik atera gaitzke.

Bietan ere herriko goiko aldera joko dugu eta handik hasten dira gero San Donatoko lehen maldak pasa ondoren bat egingo duten pista bana.

Edozein herritik irtenda ere, lehen zati honetan aldapa zorrotzak topatuko ditugu.

Bi bideek bat egiten dutenean aldapa gutxitu eta noizbehinka jaitsieraren bat ere agertuko zaigu.

Zer esanik ez pagoa dela hemen nagusi, zuhaitz lirain eta zuzenak ikusteko aukera izango dugu baso eder honetan.

Bidetik gora goazela eta ezkerreko aldean, lehendabizi Lamario eta gero Iturriabats iturriekin topo egingo dugu, eztarria freskatzeko aukera paregabea.

Aurreraxeago Lezizako borden ondoan beste langa bat



zeharkatu eta Lezizako parajeen barrena sartuko gara, paregabeko belardian basoa atzean utziz.

Hemen eskuin aldean eta muino txiki baten beste aldean daude Lezizako baltsa eta iturria (Fuentefria) eta bertan ikus dezakegu ere Mugalezeko leizea (Fuentefriako leizea). Hauxe da Urbasa-Andiako leizerik sakonena 215 metrorekin.

Bide nagusira itzuli eta gero, metro gutxi batzuk besterik ez zaizkigu geratzen Lezizako atakara ailegatu (1200 m) eta Beriain-San Donato aurrez aurre dugula, paraje eder honekin gozatzeko.



3 - ITURRIZELAIKO ATAKA

Unanuko herria 635 m
 Iturrizelaiko ataka 1410 m

Igoera denbora ordu 1 eta 45' Aldea 775 m

UNANU. Enparantza-Iturria (635 m). Herriko kale estu eta aldapatsuetatik bertako goiko aldera abiatuko gara.

Berehala pinudi baten ondotik (ezker aldean) pasako gara, pista gorantz hasi eta langa bat zeharkatu ondoren Iturtxiki izeneko iturrira hurbilduko gara. Bertatik Beriain-San Donato haitz puska primeran hauteman dezakegu.

Kantimplora bete eta freskatu ondoren, pista utzi eta ataka goraino eramango gaituen bidexka politetik jarraituko dugu.

Zati honetan eta denbora laburrez, bidexkak gora darraio sigi-sagan aldapa zorrotzean pago handien itzalpean.

Arboladia atzean utzi ondoren, bidezidorrak azkar garamatza gorantz harridi malkortsu batetik eta hau garaitu ondoren aldapa iraunkor eta leunagoan jarraituko dugu.

Aldeikozeleira iritsiko gara, Urbasa-Andia iparreko gailurreria ikusteko toki paregabea.

Ebakidura honen haitzak habitat egokia dira lasai asko gure gainean hegan dabiltzan sai erre, bele eta belatxanga kolonizentzat.

Ebakidura atzean utzi eta mendiaren erdialdeko lautadara gerturatuko gara eta aldi berean Iturrizelaiko (1410 m) atakara.

Urrutian tontorra ikus dezakegu eta bertan San Donato baseliza eta aterpea.



◀
■ Erdi ezkutuan, Gazteluko ur-jauzia

◀◀
■ Pumorin istripuan hildako bi sakanarren omenez jarritako oroigarria

▼
■ Satrustegiko tontorra



4 - BEHIPUNTAKO ATAKA

Arruazuko herria 475 m
Beriaingo ataka 1420 m

Igoera denbora 2 ordu eta 30' Aldea 945 m

*** Esan beharra dago, hau ez dela ibilbide arrunt bat, eta mendian ibiltzeko gutxienezko trebetasun batzuk menperatzea komeni dela malkor artean ibiltzeko.**

ARRUAZU. Herriko plaza-Iturria (475 m). Herriko eliza ondoan agertzen den bide aldera hurbilduko gara. Herria atzean utzi bezain laster bidegurutzet batekin topo egingo dugu; zuzen bide nagusitik jarraitu eta Ubeldiako zelaia zeharkatuko dugu.

Hemendik oso ongi ikusten da Beriaingo bretxa eta bide batez gaur egingo dugun txangoa.

Zubi eder baten gainetik gurutzatuko dugu Burunda ibaia eta hirurehun bat metro aurrerago pista utzi eta eskuinera agertzen den bide aldapatsu batetik jarraituko dugu baso ertzetik beste bide batekin topo egin arte.

Ezker aldera hartuko dugu, basora hegoalderantz sartzen den bidea jarraituz.

Geldi-geldi bidea goraka doa, usategiak ikusiko ditugu eta atzean utziko dugu linea elektriko bat.

Senda baso itxian sartzen da gora eta ezkeraldera jarraituz, bertatik datorren beste senda batekin topo egin eta eskuin aldera segituz Ondaz leporaino ailegatzeko. Inguru honetan dago Xabier Arkauz eta Aritz Artieda Pumorin hildako Sakanako mendizaleen omenezko monolitoa. Bihotzez agur...

Ondoan dugun kate hesia igaro eta eskuineko bidexkatik hegoalderantz jarraituko dugu harik eta pagadi gazte eta itxia hasi eta senda estali egiten den arte.

Beti maldan gora, lehendabizi katezko hesi bat eta gero mendi bide bat aurkituko ditugu. Pagadi eder baten itzalpean senda gora doa eten gabe malkorarekin bat egin arte. Ganaduak erabiltzen duen bidexka batetik eskuin aldera joko dugu Bretxako malkor magalera ailegatzeko, Elketzeko larrera. Hemen eskuin aldean Ipurtzuloko leizea dago.

Hemendik Sakanako herri asko eta inguruko hainbat mendi ikus ditzakegu: Urbasa, Aratz, Aizkorri, Puttarri eta Aralarreko San Migel.

Paisaia utzi eta Bretxako malkor aldera abiatuko gara. Zer esanik ez senda malda zorrotz batetik doala eta bere zailtasuna duten bi pasaleku igaro beharko ditugu. Lekua nahiko arriskutsua denez, soka txiki bat eramatea komeni da, batez ere jaitsiera leku beretik egin nahi badugu. Horretarako bertan dauden hiru hiltze erabiliko ditugu.

Hemendik aurrera aldapa leundu eta berehala goraino ailegatuko gara.

Beriaingo malkorrean edo Behipunta (1420 m) izenez ere ezagutzen den parajea gaude. Paisaia ere zoragarria da.



5 - UHARTEKO ATAKA

Uharteko herria 480 m
Uharteko ataka 1360 m

Igoera denbora 2 ordu Aldea 880 m

UHARTE. Enparantza-Eliza-Iturria (480 m.). Herritik hegoalderantz Beriaingo-San Donato magalean dauden igerilekuetara eramango gaituen errepidea hartuko dugu.

Sakanako autobia eta bertako Iruñerako sarbidea igaro ondoren kale nagusitik jarraitu eta 200 bat metro aurrerago ezker aldetik basora sartuko gaituen pista hartuko dugu.

Pista nagusitik segi eta bidegurutzet bateraino iritsiko gara. Hemen ere bide beretik jarraituz (eskuinean lurrean ganadua erabiltzen duen burdin sarea) gero eta hurbilago ikusiko dugu mendiko gailurreria.

Ordekato batera iritsiko gara eta bertan pistak ezker aldera jotzen du bat-batean (aparkaleku txikia).


Pista utzi eta mugarrizko baten laguntzaz hegoalderantz hartuko dugu senda eta aldapa zorrotzak igo ondoren mendi gailurrera hurbilduko gara.

Bidegurutzet txiki batean ezker aldera hartuko dugu (mugarria) eta gero burdin harizko hesi bat zuzeko pasabide batetik zeharkatu ondoren belarditxo lau batera aterako gara.

Hemendik pagoen hosto berrien berdearekin batera mendiaren gailurreria ikusiko dugu.

Lasaitasunez ekingo diegu azken malda zorrotz eta harritsuei atakaren goi aldera iristeko (1360 m).

Behatoki zoragarri honetatik Sakanako ekialdea ikus dezakegu; Aralarreko San Migel, Madalenaitz (Maddalen Haitz), Larraspil eta Ergako Trinitatea Irurtzun azpian duelarik.



6 - IRAÑETAKO ATAKA

Irañetako herria 460 m
Irañetako ataka 1271 m

Igoera denbora 2 ordu eta 15' Aldea 811 m

Irañetako ataka izenez ezagutzen dena igotzeko, Ihabarretik edo Irañetatik abia gaitzke.

HABAR. Kale nagusia-Iturria (460 m). Gaurko txangoa errepidetik hegoalderantz hasiko dugu, berehala autobiarekin topo eginez eta honen azpitik beste aldera pasatuz.

Zalduendora markatzen duen bidetik jarraituko dugu; bide gurutze batera ailegatu eta eskuinera hartuz pistan sartuko gara jada.

Ezkerreko bideei kasurik egin gabe pista hau jarraituko dugu eta burdinazko langa igaro ondoren Ilarrazuko arrasora ailegatuko gara.

Toki aproposa hauxe, mendilerroa eta egin behar dugun bidearen desnibela ikusteko. Behiak ere gure ondoan patxadatsu bazkatzen.

Ilarrazuko iturria ikusten dugunean (eskuinean) bidea utzi eta bertara hurbilduko gara.

Ur gozoa edan ondoren eta bertatik hasten den sendatik bagoaz gora eta eskuin aldera, arrasoko goiko aldera.

Daramagun bideak hirutan gurutzatzen du pista. Azkenekotik 200 bat metrora eta pistan dagoen burdinazko langa igarota, sendara itzuliko gara berriz.

Beheko aldean hariztia eta pinudi txiki batzuk izan badira nagusi, orain pagadi eder batean gaude eta sendak berehala Irañetatik datorren bidearekin bat egiten du.

Irañeta. Kale nagusia-Lehengo Udaletxea-Iturria (460 m). Errepidetik hegoaldera hartuko dugu bidea, autobia iritsi eta gaineko zubi batetik igaro arte.

Autobia atzean utzita, markatuta dagoen Tortoako bidea jarraituko dugu (ezkerrean) eta berehala dagoen bidegurutzean (100 m) eskuin aldera hartuko dugu.

Pista Basabe erreka ondotik doa, zubi txiki batetik erreka gurutzatuko dugu, langa bat igaro eta berriz erreka berbera zeharkatuko dugu ur asko datorrenerako prestatutako hormigoizko zubi edo pasaleku berezi batetik. Udaberria denez harri gainetatik lasai pasako gara.

Aldapa txiki bat igo ondoren eta bide gurutze batera ailegatzen garenean, eskuinera hartuko dugu harizti eder batera sartzeko.

Bidetik gertu (eskuinean), ahuntzetxe zahar bat ikusiko dugu.

Ezker eskuin agertzen diren bideei kasurik egin gabe bide nagusitik jarraituko dugu, burdinazko langa pare bat pasa ondoren harrobi zahar baten ingurura ailegatu arte.

Harrobira sartu gabe ezkerreko senda hartuko dugu (harri pilak).

Senda itxi batean maldan gora goaz Amuxkurbizkarreko pagadi azpian.

Ihabarreko bidearekin topo egingo dugu eta hemendik aurrera malda zorrotzak azalduko dira. Zuhaitzak desagertuz doaz eta bideak harridiari darraio, goiko kare haizetara, Irañetako portura ailegatu arte. (1271 m).



7 - SATRUSTEGIKO ATAKA

Satrustegiko herria 480 m
Satrustegiko ataka 1130 m

Igoera denbora ordu 1 eta 30' Aldea 650 m

SATRUSTEGI. Kale nagusia-Eliza-Iturria (480 m) Mendialderantz abiatuko gara herriko beheko aldetik. Azken etxeak atzean utzi ondoren, bide gurutze batekin



◀◀
 ■ Esait-ek antolatutako ekitaldi batean, Martin Zabaletarekin

◀◀
 ■ San Donato mendilerroa. Behean laino artean

ARGAZKIAK MIKEL NAZABAL

egino dugu topo. Ezkerreko bideari kasurik egin gabe aurrera joko dugu erreka jaisten den hormigoizko kanaletik igaroz.

Burdinazko langa batetik arraso handi batera sartuko gara; lasai asko daude bertan behiak ote eta ipuru artean.


Beti ere mendi bide nabarmenari jarraituko diogu edota bestela horretarako dauden harri pilei.

Geldi-geldi senda maldan gora doa.

Pagadi azpian eta bihurtune askotako tokian gaude. Txondor baten gainetik ere igaroko gara.

Gorantz egiten dugun neurrian eta pago hosto artean, Satrustegi, Etxarren, Irurtzun... ikus ditzakegu.

Pagadia behean geratu da eta senda gorantz doa Satrustegiko porturaino ailegatu arte.



8 - EKAIKO ATAKA

Ekaiko herria 520 m
 Ekaiko ataka 905 m

Igoera denbora ordu 1 eta 30' Aldea 385 m

EKAI. Eliza-Iturria (520 m). Herriko goiko aldera joko dugu eta azken etxeak atzean utzi ondoren beste iturri bateraino iritsiko gara. Hemen bi langa daude eta beste hainbeste pista.

Goikotik jarraituko dugu (bestetik jaisteko) arraso handi batera heldu arte. Pista mendi bidean bihurtuko zaigu eta arrasoa utzi ondoren harizti batean sartuko gara. Maldan gora hasiko gara.

Alboetako bideak utziz, nagusiarri jarraituko diogu.

Berehala burdinazko langa batera iritsiko gara. Igaro aurretik eta hesia eskuinerantz jarraituz, 330 bat metrora, Iturmutxuko iturria dago (ikustea merezi du).

Gure bidera itzuliz, aurrera jarraitu eta Usuelko atakara ailegatuko gara.

Ganadu ugari ikusiko dugu bertan, behiak eta behorrek batik batik, beraientzat prestatutako ur baltsa eta ganbelaren inguruan.

Kasko hau oso altua ez izan arren, toki aproposa da Sakanako ekialdeko herri eta mendiak ikusteko. Aralarreko San Migel, Madalenaitz, Larraspil, Bi Ahizpak eta Ergako Trinitatea.

Berriz bide nagusira itzuliz, hemendik aurrera jarraituko dugu garaierarik galdu gabe. Zuhaitzak atzean utzi eta hurrengo bide gurutzean aurrera joko dugu (eskuinera) goiko sendatik Ekaiko atakara. Katezko hesia eta egurrezko pasalekua dagoen tokiraino.



9 - URRITZOLAKO ATAKA

Urritzolako herria 490 m
 Urritzolako ataka 875 m

Igoera denbora 2 ordu eta 30' Aldea 570 m

URRITZOLA. Herriko plaza-Iturria (urik gabe) (490 m) Herria utzi eta hegoalderantz abiatuko gara errepidearekin topo egin arte eta orduan eskuin aldera joko dugu mendi bide bat hartzeko.

Langa edo katezko hesi bat pasa ondoren, harizti eder batean jarraituko dugu eta sendatik eta mugarriez baliatuz Muskiloko zelairaino iritsiko gara (lehenko soroak).

Senda jarraituz, 220 bat metro aurrerago, egurrezko pasaleku batetik beste aldera igaroko gara.

Berehala ezker aldean Muskiloko iturria jaitsiko gara kantinplora betetzera.

Errekatxo baten ondotik jarraitzen duen sendara itzuliko gara eta hau aurreraxeago bitan banatzen da. Edozein jarrai dezakegu, gero, zelai txiki batera ailegatzekoan biek berriz bat egiten baitute.

Haritz artean jarraituko dugu, beti ere senda nabarmenenetik, horretarako mugarriak kontuan hartuz.

Ezker aldetik, etortzen den senda batekin bat egin eta pagadi eder batean sartuko gara.

Senda lasaia izan arren, laster pago handi batzuen ondotik ezker aldera hartzen dugunean, azken malda zorrotza azalduko zaigu.

Hau igo eta pagoen itzalpean Urritzolako atakara (875 m) iritsiko gara, kate hesia egurrezko pasa leku batetik zeharkatuz.

Bibliografia

Egile ugari. "Navarra ecológica y paisajística". Caja de Ahorros de Navarra. 1980
 Egile ugari. "Los grupos humanos en la Prehistoria de Encia-Urbasa". Eusko Ikaskuntza. 1982-83
 Perez Olo, F. "Ermitas de Navarra". Caja de Ahorros de Navarra. 1983
 Egile ugari. "El Parque natural de Urbasa y Andía". Gobierno de Navarra-Caja de Ahorros de Navarra. 1998

Kartografia

IGN. "Olio, 114-IV". 1:25.000. 1996
 IGN. "Gulina, 115-III". 1:25.000. 1996
 Nazabal, M. "Urbasa Entzia Andia". 1:50.000. 1992

RESUMEN

EN este II y último artículo, se expone la ascensión a nueve portillos de la vertiente norte de la sierra Andía-Satrustegi, portillos éstos que han sido utilizados por nuestros antepasados para acceder a lo alto de las sierras, bien en busca de ganado, leña, hoja, carbón,....

El cresterío de la sierra Andía-Satrustegi es la prolongación de la conocida sierra Urbasa, que en dirección este, avanza hacia el cortado de Oskia, situado en el extremo oriental de la sierra Satrustegi. □